

BIGARREN PROBA (2026/06/15)

JARRAIBIDE-ORRIA

1.- TEKNOLOGIA: GAILURIK EZ.

Azterketa egin bitartean, izangaiok debekatuta duzue eskura izatea komunikatzeko, Interneti lotzeko edota informazioa eskuratzeko gailurik: mugikorrak, smart-watch tankerako erlojuak, ebookak eta antzekoak.

Beraz, itxialdian eta ariketa egin bitartean **EZIN IZANEN DUZUE ERABILI** halakorik.

HORI DELA ETA, IZANGAIEI AUKERA ESKAINTZEN ZAIZUE HALAKO GAILUAK EPAIMAHAIKIDEEN ESKUETAN UZTEKO, PROBA EGIN BITARTEAN.

2.- ANTOLAKETA

Ekainaren 8an egindako zozketaren arabera, 2 txanda egin ditugu: goizekoa eta arratsaldekoa.

Goizeko txanda, hurrenkera honetan, honako hauek osatuko duzue:

- Loitegui Biurrun, Elena.
- Narbona Beitia, Iker.
- Otegi Jauregi, Maite.
- Rey Gorraiz, Uxue.
- Robles Vitas, Sarai.
- Rodrigo Lorenzo, Irati.
- Sánchez Martín, Ainhoa.
- Tirapu Nuin, Ainara.
- Uharte Zubillaga, Aroa.
- Zubeldia Apaolaza, Orreaga.
- Alonso Gezuraga, Imanol.

Arratsaldeko txanda, hurrenkera honetan, honako hauek osatuko duzue:

- Amorrortu Barrenetxea, Peru.
- Amundarain Aguirre, Iraia.
- Bacaicoa García, Irati.
- García Guerra, Jone.
- Goldaracena Sánchez, Garazi.
- Gurbindo González, Amaia.
- Hualde Caballero, Ainhoa.
- Izkue Daroca, Amaia.

BIGARREN PROBA (2026/06/15)

JARRAIBIDE-ORRIA

- Jaso Esain, Xabier.
- Larrañaga Laskurain, Lierni.
- Lizoain Cotanda, Maider.

Goizeko txandakoei 09:00etan harrera egingo zaizue Nafarroako Parlamentuko sarrera nagusian. Gero, **izangaiak** areto batean egonen zarete, ariketa egiteko txanda noiz iritsiko zain. Banan-banan deituko zaituztegu.

Izangai batek ariketa amaitzen duenean beste areto batera eramanez dugu, eta han elkartuko da ariketa bukatu duten beste kideekin. Ezin izanen da inor atera aretotik arratsaldeko txandakoak Parlamentura etorri eta ariketa aurretiko itxialdian sartu arte.

Arratsaldeko txandakoen kasuan, 14:00etan Parlamentuan egon beharko duzue, itxialdian sartzeko. Behin aretoan sartuta, banan-banan pasako zarete kabinara ariketa egitera –goizeko txandakoek egin bezala–, baina ariketa amaitutakoan kalera aterako zarete zuzenean.

Itxialdietan, **debekatuta duzue teknologia, baina paperean argitaratutako liburuak edo antzeko beste batzuk erabil ditzakezue** itxaronaldia arintzeko. Era berean, janariak eta edariak eraman ahalko dituzue.

3.- KABINAKO ARIKETA

Kabinan, boligrafo bat eta orri batzuk izanen dituzue, behar izanez gero lagungarri gisa erabiltzeko.

Epaimahaikide batek ariketari buruzko argibideak emanen dizkizue. Horrez gain, orri batean, bideoari buruzko zenbait informazio eskura izanen duzue.

Epaimahaia ondoko areto batean egonen da interpretazioak entzuten eta kalifikatzen.

Ariketa guztiak grabatu egingen dira.

4.- PROBAREN ETA ARIKETEN PUNTUAK, ETA GAINDITZEKO GUTXIENAK

Proba honetan 30 puntu lortu ahalko dira gehienez. Bazterturik geldituko dira proban **gutxienez 15 puntu** lortzen ez duten izangaiak.

5.- BALORAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Datuen, terminologiaren eta abarren **zehaztasuna** baloratuko da.

2.- Hizlariak dioen guztia esan behar da, eta **informazio-galerak puntuazio-galera** ekarriko du. Ez da informazio-galeratzat joko hizlariaren nahi gabeko errepikapenak ez errepikatzea.

3.- Ez da esan behar hizlariak esaten ez duen ezer. Interpreteak hizlariak esaten ez duen zerbait **eransteak puntuazio-galera** ekarriko du.

BIGARREN PROBA (2026/06/15)

JARRAIBIDE-ORRIA

4.- Interpretearen mintzaldiak diskurtso jarraitua izan behar du, etenik gabea (esaldiak hasi eta bukatuta), eta intonazio egokiduna. Helburua da entzuleengan segurtasuna sortzea, ez zalantza. Interpretea **zer esan ez dakiela geratzeak edo esaldiak amaitu ezinik ibiltzeak puntuazio-galera ekarriko du**. Interpreteak hitzun ona dela erakutsi behar du.

5.- Euskaratik gaztelaniara interpretatu behar duenez, interpreteak gaztelania-maila zaindu behar du: **gaztelaniaz zuzen hitz egin** behar du, **eta egoerari dagokion erregistroan**.

6- BESTELAKO OHARRAK

- Itxialdiak iraun bitartean **komunera** joan nahi izanez gero, eman abisua zaintzaileari, eta bertaraino lagunduko zaituztegu. Ezin izanen dira bi pertsona aldi berean atera.

- **Bertaratu izanaren ziurtagiria behar duzuenok**, esan, eta proba amaitzen duzuenean emanen dizuegu.

- **Probako emaitzak Iruñeko Udalaren webgunean** argitaratuko dira.